

## MEMORIA

### ARAUTUTAKO APARKALEKUEN UDAL ZERBITZUAREN ORDENANTZA

ARAU ALDATZEKO PROZEDURAREN AURRETIKO KONTSULTA PUBLIKOAREN TRAMITEA.

Herri Administrazioetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2915 Legearen 133 artikuluan ezarritakoaren arabera, egitasmoak eta aurre-egitasmoak eta araudiak egin aurretik, kontsulta publikoa egin beharra dago, hain zuzen ere etorkizuneko arauak agian eragingo dien pertsonen eta elkarte esanguratsuenen artean iritzia jasotzeko; beraz, hori betetze aldera, aldez aurreko kontsulta egin bedi *araututako aparkalekuen udal zerbitzuaren ordenantzaren aldaketa*.

Arauren aurrekariak	<p>Arau honek aldatu egiten du 2021eko uztailaren 22an egindako ezohiko bilkuran onartutako eta, ondoren, Udalbatzak 2022ko martxoaren 31n egindako bilkuran aldatutako <i>araututako aparkalekuen udal zerbitzuaren ordenantza</i> aldatu.</p> <p>Urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Bateginaren 7 b) artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriri dagokio aparkaldi mugatuko neurriak ezartzea, aparkalekuen txandakatzea bermatzeko.</p>
Ekimen honekin konpondu nahi diren arazoak	Gune batean aparkatzeko eskaria, Barrenkale kaleko eta San Martin auzoko bizilagunei gaez zerbitzua ematea ahalbidetzen duena.
Hori onartzeko beharra eta aukera	Aparkatzeko eskaerari behar bezala erantzutea, hiri-kalitatearen eta irisgarritasunaren helburu orokorren barruan, ordenantza hau aldatzea egokitzat jotzeko arrazoiak dira.

Arauaren helburuak	Barrenkale kalean eta San Martin auzoan bizi direnei aparkatzea erraztea.
Aukerako soluzio arautzaile eta ez arautzaile posibleak.	Aukerako soluzioa ordenantzarik ez aldatzea izango litzateke. Hala ere, Barrenkale eta San Martin auzo inguruan aparkatzea hobetu nahi denez, komeni da hura aldatzea eta modu uniformean eta eraginkortasunez aplikatzen dela ziurtatzea.